

eraginpeko biztanleria

Larruazaleko Agerpenak dituzten Ahaztutako Gaixotasun Tropikalek eraginpean hartutako pertsonak, familiek eta komunitateek **aktiboki parte hartzen dute gaixotasun horiei erantzuteko jardunean**, arreta berezia eskainiz kaltebera egoera handiengan dauden kolektiboak.

Haien gaitasunak indartzen ditugu.

Eraginpeko biztanleriaren bizi-esperientzian sakontzen dugu

Protagonismoa ematen diogu eraginpeko biztanleriari.

Haien garapen ekonomikoa bultzatzen dugu.



gobernuak

Gobernuek beren gain hartzen dituzte Larruazaleko Agerpenak dituzten Ahaztutako Gaixotasun Tropikalekin lotutako jardunarekiko eta **Osasunerako Giza Eskubidea erabat egikaritzearekiko gauzatzeko dauzkaten betebeharrak, baita emakumeen eskubideekiko dituztenak ere**, gaixotasun horien ondoriozko diskriminazioa desagerraraztea ere bilatuz.

Osasun Programa Nazionalen gaitasunak sendotzen ditugu.

Genero-zeharkakotasuna azpimarratzen dugu.

Eragin politikoaren bidez egiten ditugu akordioak.

Emaitzeterako orientazioa indartzen dugu.



gizarte zibila


Gizarte zibila antolatuta dago eta **ekintzak artikulatzen ditu beste eragile batzuekin –publikoak eta pribatuak–**, eraginpeko biztanleriari protagonismoa emanez.

Gizarte zibilaren erakundeak gehitzen ditugu.

Ipar globaleko gizarte zibilaren hezkuntza-ekintzak bultzatzen ditugu.

Haien gaitasunak indartzen ditugu.

Emaille publiko eta pribatuak erakartzen ditugu.



ezagutza

Eragileen arteko ezagutza sortzen eta partekatzen da **Larruazaleko Agerpenak dituzten Ahaztutako Gaixotasun Tropikalek eraginpean hartutako pertsonen prebentzioa, diagnostikoa, tratamendua eta errehabilitazioa ahalbidetuz** eta, horrela, osasunean kezkak eragiten dituzten mekanismoak hobeto ulertzea ere ahalbidetuz.

Osasun globaleko agendan eragitea bilatzen dugu.

Prestakuntzan eta ezagutza-transferentzian laguntzen dugu.


Eskuratutako ezagutza sozializatzen dugu.

Ezagutza-sorkuntza sustatzen dugu inplikaturako eragileen artean.

Ezagutza propioa sortzen dugu gure esperientziatik.

LARRUAZALEKO AGERPENAK DITUZTEN AHAZTUTAKO GAIXOTASUN TROPIKALEK SAHARAZ HEGOALDEKO AFRIKAN

Larruazaleko Agerpenak dituzten Ahaztutako Gaixotasun Tropikalek Saharaz hegoaldeko Afrikan eraginpean hartutako pertsona, familia eta komunitateek Osasunerako Giza Eskubidearen erabateko egikaritzapenaren bidez **hobetzen dute beren ongizatea**, gizonen eta emakumeen arteko baldintza- eta aukera-berdintasunean, eta **bizimodu duina** izatea ahalbidetzen dien garapena lortu dute gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloetan.



sektore pribatuak

Osasunerako Giza Eskubidea betetzearekin lotutako Larruazaleko Agerpenak dituzten **Ahaztutako Gaixotasun Tropikalei erantzuteko jardunera zuzendutako baliabideak mobilizatzen ditu** sektore pribatuak.

Gizarte-ekintzailetako ekintzak sustatzen ditugu.

Sozialki Arduratsuak diren Inbertsioak bultzatzen ditugu.

Sektore pribatuko emailleak erakartzen ditugu.

Konpromisoa sustatzen dugu Ipar globaleko sektore pribatuan.



aliantzak

Larruazaleko Agerpenak dituzten Ahaztutako Gaixotasun Tropikalei erantzuteko jardunean inplikaturako instituzio eta erakundeek **aliantzak eta ekintza koordinatuak garatzen dituzte** eraginpeko pertsonen edo inoiz eraginpean egon daitezkeen **bizitza hobetzen laguntzeko**.

Eragileen arteko ekintza koordinatua sustatzen dugu.

Baliabide finantzarioen eta ez-finantzarioen mobilizazioa artikulatzen dugu.

Eragile anitzeko komunikazio-ekintzak sustatzen ditugu.

Aliantzak sustatzen ditugu komunikabideekin.